

txintxonga




2004ko ekaina– 13. alea

AMOROTO ESKOLAKO ALDIZKARIA

ESKOLAKO EKINTZAK

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Ekainaren 6an, Euskal eskola publikoaren X III. Jaia izango da Bilboko Zorroztzaurren. Goizeko 11:00tan hasiko dira ekintzak Panpotx kultur elkarte izango da lehena eta amaitu 19:15 etan. Bien artean tailerra, pusgarriak, kontzertua eta abar egongo da



IDAZLEA ESKOLAN

Ekainaren 15ean Miren Agur Meabe idazlea Amorotoko eskolara etorriko da eta guk galdera batzuk prestatuko dizkiogu liburu berriari buruz

ARTEAGAKOAK AMOROTORA

Ekainaren 16an Arteagako ikasleak datoz eskolara guri bertsoak eta kantak abestera.

ESKOLAKO JAIA

Ekainaren 27an eskolako jaia egongo da, eta orduan antzerkia, txirula jo, dantzan egin eta beste gauza asko egongo ditugu. Ekainaren 21etik 25 arte bitartean jai edukiko dugu, eta 25ean berriro eskolara etorriko gara. Eskola amaitzen dugunean, udako oporrak hartuko ditugu.



HERRIKO BERRIAK

ESKOLAN KONPONKETA



Eskolan konponketa egingo da: Zuzendaritza gelaren eta beheko

gelaren arteko tartea zarratu egingo da horma batez, eta beheko gelara jeizteko ate berri bat egingo da, eskolako sarreratik. Ikasturtea amaitutakoan egingo da konponketa.

OLETAKO ALDAKETA



Oleta auzoko espaloiak konponduko dira: barandila berria ipini, eta espaloietara igotzeko arlanpak egingo dira. Honela, elbarriak ere lasaiago ibili ahal izango dira.

2003-2004 i kasturteko une batzuk

